




# Aurkibidea

|    |                                                     |    |
|----|-----------------------------------------------------|----|
| 0. | Sarrera                                             | 03 |
| 1. | Identitate ezaugarriak                              | 05 |
| 2. | 2021erako erronka estrategikoak                     | 07 |
| 3. | 2018- 2021erako erronka estrategikoen garapena      | 09 |
|    | 3.1. Lankidetza multiplikatu                        | 09 |
|    | 3.2. Pertsonak                                      | 12 |
|    | 3.3. Gure inguruneko eraldaketa sozialean inplikatu | 14 |
|    | 3.4. Sostengarritasun finantzarioa                  | 15 |
| 4. | Antolaketa                                          | 17 |

## **MUNDUKIDE FUNDAZIOA**

Zarugalde 30  
20500 Arrasate  
Tel. 943 772010  
Fax. 943 792946  
[mundukide@mundukide.org](mailto:mundukide@mundukide.org)  
[www.mundukide.org](http://www.mundukide.org)

Lege gordailua: SS 423-2016  
Neo STAR Matt-FSC paperean inprimatua.

# Sarrera

2017ko azken hiru hilabeteetan, 2018-2021 epealdirako bideragarritasun estrategikoa lantzen aritu da Mundukide. Prozesua oso partehartzailea izan da eta makina bat lantaldean inplikaturako jendea; kooperatibetako ordezkariak, boluntarioak eta beste hainbat eragile.

Prozesuaren emaitza 2021. urteari buruzko bisioan laburbiltzen da: **Ilusionatutako pertsonak, gure lankidetzak multiplikatuz gizartea eraldatzeko.**

**Pertsonak.** Arizmendiarrietak zioen bezala, eraldatzeko helburua duten pertsonak, eta ez begira geldituko direnak. Norberaren burua eta ingurua eraldatzeko gai diren pertsonak. Urrutiko herrialdeetan esperientziak partekatzeak eta berta-koengandik ikasteko prest dauden pertsonak. Baita, Euskal Herrian, erakundearen gestio lanetan lagunduko diguten boluntarioak.

Azken finean, norberaren lana elkarbanatuaz behar handiagoak dituzten pertsonen aukerak eskaintzeko prest dauden pertsona ilusionatuak.

**Lankidetzak multiplikatuz.** Horrek berekin dakar, alde batetik Mozambike eta Brasileko programen inpaktua handitzea. Horrez gain, Kolonbia eta Ekuadorren programa berriei hastea eta oraindik identifikatu gabeko Afrikako herrialde batean ekitea, bildutako esperientzia aprobetxatuz.

Gure proposamena Nazio Batuen Garapen Sostengarrirako Helburuekin lotzekatzen da, eta helburuoi ekarpena egitea dugu xede, tresna egokia baita giza garapen sostengarria lortzeko bidean; horretarako, eragile desberdinak inplikatu nahi dira inplementazioan, hasi administrazio, kooperatiba, sektore akademiko eta gizarte zibil antolatuaren beste erakunde batzuetatik eta herritarrenganaino, oro har.

**Gizartea eraldatzea helburu.** Eraldaketa sozialerako konpromisoa erraz lotzen dugu gure hurbileko ingurunearekin. Goitik behera hobetu nahi genituzkeen alorrak identifikatzen ditugulako (desigualtasuna, pobrezia, generoa, arrazismoa, emigrazioa, sostengarritasuna, ingurumena, injustizia...). Eta hala ekarpena egiteko aukerak identifikatzen ditugulako, norbere errealitatetik abiatuz.

Mugimendu kooperatiboa eta osatzen dugun pertsonak kontziente dira (gara), eta behar dute (dugu) izan, honen guztiaren hedadura unibertsalaz. Kontziente izan behar dugu, zer nolako zorronekoak garen, bizi garen tokian jaio eta bizitzegatik, herrialde aberatsetan bizi gara eta.

Mundukidek, hein handiagoan, kooperatiben eta pertsona kontzienteen aliatu nagusia izan nahi du nazioarteko elkartasunaren alorrean. Babesa eta bizia ematen dioten zerbitzura dagoen tresna izan nahi du, hegoaldeko herrialdeetan ere eraldaketa sozialean laguntzeko.

Iparraldeko herrialdeok, neurri handian, denok ondo ezagutzen dugun desberdintasun horren jatorrian gaudelako. Kezkatzen eta jardutera bultzatzen gaituzten gaiak are biziago, gordinago eta ankerrago agertzen direlako hegoaldeko herrialdeetan. Konpondu nahi ditugun arazo asko ez direlako ez “hemengoak” ez “hangoak”. Denoi eragiten digute eta nekez dira disoziatzen.

Laburbilduz, hauek lirateke Mundukidek datozen urteetan bultzatu nahi lituzkeen ekarpen ildoak:

- Orain arte metatutako esperientzia errepikatu eta esperientzia berriak garatu.
- Kooperatibek bultzatutako eraldaketa sozialeko proiektuetan lankidetzan jardun.
- Eraldaketa sozialerako hezkuntza egitasmoak sustatu.
- Nazioarteko elkartasunaren alorrean aliatua eta tresna izan.

Aldi estrategiko bat hasi behar dugu, 4 urte ditugu aurrean. Lantaldean ilusio handia dago, daukagun esperientzia gero eta baliotsuagoa da, eta gure ingurunearen eta pertsonen babes handia ere hor dago.

Askok dago egiteko eta Mundukideren konpromisoa gero eta pertsona gehiagori laguntzea da, gero eta emakume gehiagori, gero eta familia gehiago hobeto bizi daitezen. Eta guztia, lana eta interkooperazioa bultzatuaz.



# Mundukideren identitate ezaugarriak



## Misioa:

Hegoaldeko herriein lankidetzan jardutea, esperientziak, baliabideak eta jakintza partekatuz, parte hartzen duten aldeek autokudeatutako garapen integrala sustatzeko; eta, horretarako, lan kooperatiboaren munduaren elkartasuna aktibatzea, Mundukideren balioen eta printzipioen oinarripean eta gidaritzapean.



## Bisioa:

Ilusionatutako pertsonak, gure lankidetzan multiplikatuz gizartea eraldatzeko.



## Balioak:

**Elkartasun unibertsala.** Hona hemen Mundukiden parte hartzen dugun lanaren funtsa: ekonomia solidarioan oinarritutako beste esperientzia batzuekiko eta demokrazia sozialaren alde lanean diharduten guztiekiko elkartasuna; bakea, justizia eta garapena helburu.

**Lana.** Gure lana, berez, ekintza eraldatzailea da, aldaketarako ekintza da, garapena lortzeko bidea. Mundukiden dihardugunon ustez, lana balio bat da berez eta lanak lehentasuna du kapitalaren aurretik.

**Eraldaketa soziala.** Mundukidekook eraldaketa bilatzen dugu, pertsona eta gizarte bidezkoagoak eta arlo guztietan autokudeaketara emanagoak lortzeko bidean; baita genero harremanen arloan ere. Ikuspegi horretatik, autonomiak berebiziko garrantzia du pertsona, kolektibo eta herri bakoitzak zer gizarte eredu izan nahi duen erabaki ahal izateko.

“

Mundukideren konpromisoa gero eta pertsona gehiagori laguntzea da, gero eta emakume gehiagori, gero eta familia gehiago hobeto bizi daitezen. Eta guztia, lana eta interkooperazioa bultzatuaz.

”



## 2. Erronka estrategikoak 2021

**Hausnarketa prozesuaren emaitza gisa, honako erronka estrategiko hauek ezarri dizkiogu geure buruari, azken helmuga gisa, 2018-2021 aldirako:**



### Deskripzioa



### Adierazleak

#### 1. Lankidetzak multiplikatuz

Metatutako esperientzia errepikatu eta esperientzia berriak garatzea.

- Herrialdeak: 2tik 5era pasatu.
- Kokalekuak: 10etik 20ra.
- Zuzeneko parte hartzaileak, pertsonak, bazkideak, etab.
- Interkooperazio proposamen berriak: 10.

#### 2. Pertsonak

Pertsonen konpromiso, motibazio eta profesionaltasunean aurrera egitea, honako hauen bidez:

- Prestakuntza eta trebakuntza.
- Koordinazioa eta talde lana.
- Elkarriketa eta solasa.
- Kontziliazioa eta genero ekitatea.
- Poztasun handiagoko lan giroa indartzea.

- Antolamenduaren kulturari buruzko ad hoc inkesta: >4/5, gehikuntza progresiboa.
- Pertsonen antzintasun urteak.
- Langile sartu berriak.
- Genero plana betetzea.

#### 3. Gure ingurunean eraldaketa sozialean inplikatu

Posizionamendua zehaztea eta gure kooperatibetako eraldaketa sozialeko proiektuetan dugun inplikazioa handitzea.

- GEHko (Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza) proposamen propio bat garatzea.

- Proposamena gauzatu eta betetzea.
- Nabarmentasun ikerketaren emaitzak.

#### 4. Sostengarritasun finantzarioa

Mundukideren finantza beharrei erantzutea.

- Erabilera libreko fondoak handitzea.
- Finantza baliabideak mantendu eta dibertsifikatzea.
- Esperientzia berrietarako fondoak erakartzea.
- Segurtasun fondoari eustea.

- Erabilera libreko fondoaren gutxienezkoa: %50 aurrekontu totalarekiko 2021ean.
- 2.000.000 €-tako aurrekontu totala 2021ean.
- Erabilera libreko fondoaren %30 gehienez programak finantzatzeko.



“

Gure proposamena Nazio Batuen Garapen Sostengarrirako Helburuekin lerrokatzen da, eta helburuoi ekarpena egitea dugu xede, tresna egokia baita giza garapen sostengarria lortzeko bidean; horretarako, eragile desberdinak inplikatu nahi dira inplementazioan, hasi administrazio, kooperatiba, sektore akademiko eta gizarte zibil antolatuaren beste erakunde batzuetatik eta herritarrenganaino, oro har.

”





### 3. 2018-2021 aldirako lerro estrategikoak

Erronka estrategikoak lortzeko, honako lerro estrategiko edo jarduera arloak landu nahi ditugu.

#### 3.1. 1 Erronka estrategikoa: Lankidetzaren multiplikazioa

Metatutako esperientzia errepikatu eta esperientzia berriak garatu.



Helburu espezifikoak  
eta GIH\*



Ekintza eta proiektu  
elkartuak

#### 1A lerro estrategikoa: Brasil

Brasilgo programaren inpaktua handitzea.



- Lagundutako kooperatiben kopurua handitzea.
- Laguntza eredua hobetzea.
- Prestakuntza sustatzea, kooperatibetako liderrak trebatzeko.
- Komertzializazioa sustatzea.
- Interkooperazioa sustatzea.

#### 1B lerro estrategikoa: Mozambique

Parte hartzaileen produkzio eta merkataritza jarduera areagotzea (nekazaritzako 10.000 lanposturen baliokidea).



- Ekoizpen eta tratamendu berrien sarrera.
- Teknika berrien eta ureztatze sisteman berrien sarrera.
- Intsumoen gestiorako eta komertzializazio alorrean babesa. Bertako merkatariekin lankidetzatza.
- Gestiorako harraminta berriak: kontatibiltatea, lursailen neurketa, kanpainetako datu bilketa,...

\* Garapen Iraunkorreko Helburuak



## 1C lerro estrategikoa: Beste herrialde batzuk

Programak beste hiru herrialdetan hasia.  
(Mundukideko lan ildo bietan).



- Kolonbian eta Ekuadorren identifikazioa bukatzea: tokiko entitatea eta esparrua.
- Afrikan programa berri bat identifikatzea, duela 5 urte egindakotik abiatuz, badagoelako halako adostasun bat programaren potentzialtasunaz, programaren ikuspegia nekazaritzaren garapenean oinarritzeaz eta Mozambiken urteetan egindako lana aprobetxatu beharraz.
- Programen hasiera lekuan bertan gidatuko duten pertsonak bilatu eta lanean jartzea.
- Eskualde garapeneko programetan eta antolamendua indartzeko programetan, finantzaketa proiektuen proposamenak aurkeztea.

## 1D lerro estrategikoa: Interkooperaziorako proposamen berriak (I+G)

Lerro estrategiko hau Mundukideren “I+G-ko inbertsioztat” jotzen da, hau da, interkooperazio proposamen berriak identifikatzen dituen prozesua izanik, gure eskemak eta jardun-moduak zabaltzeko, eta baita etorkizunean baliagarri izan dakizkigukeen beste errealtate batzuetara gerturatzeko ere.

MDKDN interkooperazioa indartuko duten ideia nahiz proposamen berriak identifikatu eta lantzea.

### Interkooperazio proposamen berri bat definituko duten aldagaiak honakoak dira:

- Kolaborazioen eta aliantzen bilaketa. Arrakasta ereduak identifikatzea.
- Kanpoko proposamenei erantzuna ematea.
- Zerbitzuak ematea.
- Programetatik ikasteko materialak: programak berrikusi, erabilera analizatu, sistematizatu, argitaratu.



## 1E lerro estrategikoa: Harremanak

Programetan inpaktua handitzen lagunduko duten harremanak indartzea.



- Komunikazio errespetutsu, eraikitzaile eta etengabea erreferentziazko **tokiko eragileekin**.
- Komunikazio errespetutsu, eraikitzaile eta etengabea **administrazio publikoekin**.
- Interesgarriak diruditen **GGKEekin** topaketak antolatzea proiektuetan lankidetzan jarduteko.
- Interesgarriak diruditen **eragile kooperati boekin** topaketak antolatzea proiektuetan lankidetzan jarduteko.



## 3.2. 2. erronka estrategikoa: Pertsonak

**Pertsonen konpromiso, motibazio eta profesionaltasunean aurrera egitea.**



**Helburu espezifikoak**



**Ekintza eta proiektu elkartuak**

### 2A lerro estrategikoa: Pertsonak

|                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Lantalde motibatua, trebatua, pres-tatua, koordinatua eta Mundukideren balioekin konprometitua. | Pertsonen arloko erronkei buruz hausnartu: hasi kon-tratatutako pertsonen lege egoeratik (egoera juridikoa eta fiskala) eta ordaindutako atsedenaldiak ahalbi-detzeko mekanismoetara...                                                                                                                                                                                                                                         |
| Profil egokia daukaten pertsona be-rriak erakartzea.                                            | Langileak, boluntarioak eta ikasleak –dauden behar-re-kin eta zehaztutako profilekin bat datozenak– bilatu eta hautatzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| Eskarmentua daukaten pertsonak mantentzea.                                                      | Kontratutako pertsona beterranoen taldea man-tentzea, baita boluntarioak ere, ordezkapenak langile berrie-kin bete behar direla aurreikusiz.                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| Etengabeko prestakuntza eta pertso-nen trebakuntza sustatzea.                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Harrera plana (kontratutako pertsonentzat, bo-luntarioentzat eta ikasleentzat), Fundazioa hobeto ezagutzeko.</li> <li>• Urteko prestakuntza plana (kontratutako pertso-nentzat, boluntarioentzat, ikasleentzat). Prestakuntza-rako aurrekontua eta baliabideak.</li> <li>• Programen eta prozesuen jardura ondo garatzeko behar den informazioa eta dokumentazioa zehaztea.</li> </ul> |
| Pertsonen gogobetetze maila on bat lortu eta mantentzea.                                        | Kontratutako langileen, boluntarioen eta ikasleen gogobetetze maila progresiboki hobetuz joatea, eta horretarako, parte hartzea, koordinazioa, barne komu-nikazioa eta informazioa sustatzen jardutea, pertsona guztiei erronka erakargarriak eskainiz.                                                                                                                                                                         |



## 2B lerro estrategikoa: Barne antolaketa eta komunikazioa

|                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Barne antolaketa berri bat zehaztea.                                                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Organigrama berria.</li> <li>• Antolaketa egitura berria.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| Organoen dinamika, eta koordinazioa eta parte hartzea sustatzen duten topaketak.        | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Koordinazio eta parte hartze organoak martxan jartzea.</li> <li>• Parte hartzea eta informazioa partekatzea sustatuko duten topaketen eta bileren dinamika.</li> <li>• Prozesuen mapa eta prozesuak berrikusi eta eguneratzea.</li> <li>• Plan Estrategikoaren erronkei jarraipena egitea.</li> </ul>                                         |
| Erakundearen genero transbertsalizazioaren estrategian sakontzea.*                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Generoari loturiko politika berria eta ekintza plana.</li> <li>• Genero Taldea birdefinitu eta sustatzea.</li> <li>• Generoaren arloan formatzeko plana.</li> <li>• Programen genero ikuspegia berrikustea.</li> <li>• Aliantza berriak sortzea.</li> <li>• Emakunderen erakunde laguntzaile izatearen ziurtagiria berreskuratzea.</li> </ul> |
| Erakunde barruan informazio fluxua eta ezagutza ahalbidetuko dituen barne komunikazioa. | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Egoitzaren eta programen arteko informazio fluxua sistematizatzea, baita programa desberdinen artean eta interkooperazio sistemaren beste parte hartzaileekin ere (boluntarioak, kooperatibak, GKEak, ikasleak eta Unibertsitatea), kanal formal eta informal bidez.</li> </ul>                                                               |

## 2C lerro estrategikoa: Sistemak

|                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|-------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Mundukideren lan prozesuak berrikusi eta eguneratzea. | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Koordinazio eta planifikazio prozesuak eta pertsona eta kudeaketa ekonomikoarekin lotutakoak eguneratzea.</li> <li>• Prozesuen mapa berrikusi eta eguneratzea, prozesuen eta erronka estrategikoen arteko erlazioa zehaztuz.</li> <li>• Sistemei loturiko prozesuaren arduraduna definitzea.</li> <li>• Mundukideren beharrei erantzun dieten tresnak zehaztea.</li> </ul> |
|-------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

\* Genero alorreko lana, pertsonen atalean sartzea erabaki da, estrategikoki hemendik emango baitzaio jarraipena. Hala ere, genero berdintasunaren alde egiten diren ekintza, hausnarketa eta aldaketak, sektorialaz gain, bokazio transbertsala ere badu. Horretaz, hemen bakarrik adierazten bada ere, plan estrategikoko alor guztietan txertatuta egongo da genero ikuspegi, analisi eta eraldaketarako proposamena.





### 3.3. 3. erronka estrategikoa: Gure eraldaketa sozialean inplikatu

Posizionamendua zehaztu eta gure kooperatibetako eraldaketa sozialeko proiektuetan dugun inplikazioa handitu.



Helburu espezifikoak



Ekintza eta proiektu elkartuak

#### 3A lerro estrategikoa: GEH (Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza) proposamen propioa

GEHko proposamen propio bat garatzea.

- Sentsibilizazioa eta komunikazioa. Egindakoarekin jarraitzea.
- Jardueren alternatibak analizatzea.
- Aurrekontuak, arduradunak eta zereginak zehaztea.
- Barne proposamenaren zirriborroa idaztea: alde zuzeneko prestakuntza, ideien bilketa, xede publikoa, gai nagusiak...
- Proposamena interkooperazio prozesuan txertatzea.
- Proiektuak gauzatzeko finantzaketa eskaerak idaztea.
- Gauzatu eta jarraipena egitea.

#### 3B lerro estrategikoa: Erreferente izatea lankidetzako kooperatiboan

Garapenerako lankidetzaren erreferente izatea kooperatiba eta bertako bazkideentzat.

- Nabarmentasuna ikertu eta Mundukide marka analizatzea.
- Komunikazio kanalei aktibo eta eguneratuta eustea.
- Komunikazio prozesuaren dinamika bizirik eustea.
- Lehenetsuneko xede publikoengana gerturatzeko estrategia diseinatzea.
- Komunikabideetan gero eta presentzia handiagoa edukitzea.
- Espezialistekiko lankidetzak posibleak ebaluatu eta erabakitzea.



### 3.4. 4.erroka estrategikoa: Sostengarritasun finantzarioa

**Mundukideren finantza beharrei erantzutea.**



**Helburu espezifikoak**



**Ekintza eta proiektu elkartuak**

#### 4A lerro estrategikoa: Finantzaketa

|                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Erabilera libreko fondoak hantitzea.                                                                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kooperatiben kezkak identifikatzea.</li> <li>• Erabilera libreko fondoan iturri posibleak identifikatzea.</li> <li>• Bazkide eta ekarpen-egile berriak erakartzeko ekintzak.</li> <li>• Fidelizazio ekintzak GKE laguntzaileekin.</li> </ul>                                                                                                                                                      |
| Ohiko finantzatzaileak mantentzea.                                                                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Deialdiei segimendua egiteko egungo dinamikarekin jarraitzea.</li> <li>• Irizpideak betetzen direla bermatzea hautagarri izateko.</li> <li>• Finantzatzaile bakoitzaren irizpideekin bat datozen proposamenak aurkeztea.</li> <li>• Finantzatzaileek onartutako diru laguntzei segimendu zorrotza egitea.</li> </ul>                                                                              |
| Lankidetzatzaile programetarako, GLEAren (Garapen Lankidetzarako Euskal Agentzia) finantzaketa berreskuratzea. | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Segimendua egitea bai GLEAk onartutako duen Plan Zuzentzaile berriari bai deialdi eta tresnei.</li> <li>• Mundukideren estrategia eta lan metodologiaren eta GLEAren hautagarritasun irizpideen arteko bateragarritasuna bermatzea, bereziki programa berrietarako.</li> <li>• GLEAk onartzeko modukoak izatearen bermea daukaten proposamenak egitea eta haren deialdietara aurkeztea</li> </ul> |
| Lankidetzatzaile programetarako finantzaketa iturriak dibertsifikatzea.                                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arrasate, Mozambike eta Brasilgo programetarako finantzaketa iturri berriak identifikatzea.</li> <li>• Programak aurkezteko deialdi eta eskakizunak zein diren jakitea.</li> <li>• Proposamenak egin eta deialdietara aurkeztea.</li> <li>• Finantzatzaileekin harremanak izatea.</li> <li>• Justifikazio beharrei erantzutea.</li> </ul>                                                         |
| GEH (Gizarte Eraldaketarako Hezikuntza)ko tresnetarako finantzaketa lortzea.                                   | <p>GLEA, GFA, BFA eta AECIDen deialdiak GEHarekin lotuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irizpideak ezagutu eta gakoak identifikatzea.</li> <li>• Deialdiei segimendua egitea.</li> <li>• Hautagarritasun irizpideak betetzen dituzten proposamenak aurkeztea.</li> </ul>                                                                                                                                                    |
| Segurtasun fondoaren funtzionamendua finkatzea.                                                                | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Segurtasun fondoaren funtzionamendua finkatzea.</li> <li>• Segurtasun fondoaren ezarritako mugen barruan dagoela bermatzeko irizpideak aplikatzea.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                     |



## 4B lerro estrategikoa: Harremanak

Finantzaketa ahalbidetuko duten harremanak indartzea.


- Administrazioek antolatutako topaketa eta prestakuntza saioetan parte hartzea, eta administrazio horiekin bilerak egitea aldizka, bai Arrasaten bai dagokion lekuan bertan.
- Kooperatibetako lehendakari eta organoekin bilerak egitea.
- GGKE laguntzaileekin aldizkako bilerak egitea, eta haien eskaerei erantzutea.
- Gertuko GGKEekin harremana edukitzea.
- Bazkide eta partikularrekin etengabeko komunikazioa izatea.




## 4. Organigrama

Antolaketa egiturari dagokionez, 3 maila ezberdinetan sailkatzea proposatzen da: Instituzio arloa, antolaketa arloa eta programa arloa.

### 4.1. Instituzio arloa



### 4.2. Antolaketa arloa



\*GEH (Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza)

\*IPB (Interkooperazio proposamen berriak)




### 4.3. Programa arloa

\*BR (Brasil).

\*SP (Sao Paulo).

\*PR/SC (Paraná/ Sta Catarina).

\*RGS (Rio Grande Do Sul).



\*MTP /NMN (Montepuez / Namuno).

\*MRR / MJNE (Marrupa / Majune).

